

## ***Salvador Vergara (Vergara II edo “Vergarilla”)***

Salvador Vergara Larralde, Vergara II bezala ezaguna, Etxalarko Anduetzeta auzoko Etxebertzea etxean jaio zen 1952ko maiatzaren 19an. Salvadorrek 1973. urtean egin zuen debuta profesionaletan, 1992an Asegarcerekin fitxatu zuen eta 1993 urte jokatzeko aritu zen, belauneko lesio batek frontoiak uztera derrigortu zuten arte.

14 urterekin, Bidasoako txapelketan parte hartu zuen eta maila ona eskaini zuen bere baino helduagoak ziren pilotarien artean. Txapelketaz txapelketa nabarmentzen joan zen, Nafarroako federaziotik deitu zuten arte estatu mailako gazte txapelketan parte hartzeko, eta aldi berean txapelketa handian jokatzeko. Gazte sasoian Choperena III-rekin egin zuen bikote eta Aguirre, Gorostiza, Salvidea eta bertzelako pilotarien aurka jokatu zen. Federazioen txapelketan Martinez de Irujorekin egin zuen bikote, bikotea esanguratsuenen bihurtuz. Profesional mailan urte batzuetan, Errazkin herriko zen Martinikorena atzelari handiarekin bikotea osatu zuen urte askotan. Berarekin, maila handiko bikoteen aurka, Oreja II – Galarza III eta Alustiza-Tolosa, garaipenak lortu zituen. Banakako txapelketan Elías Pierolari irabazi zion eta izen handiko Garcia Ariño IV-ari eta Bengoetxea III-ari ere.

20 urteetan titulu desberdinak irabazteko aukerai zan zuen. Nabarmenenak, bikoteko hiru txapelketa, 1985an, 1986an eta 1992an. Txapeldun ordean berri bitan izan zen, 1981 eta 1990an. Datu aipagarri bezala jokaturako partida kopurua, 2180. Honek erran nahi du urtean 109 partida jokatzeko zituela, agian errekorra pilotaren historian.

1993. urtean pilotari profesionala izateari utzi zionetik, Vergara I Asegarceko zuzendari teknikoa da (Bi etapetan izan da) eta pilotarien entrenamenduen ikuskapenaren arduraduna da. Aldi berean enpresarako pilotari berriak aukeratzekoan, parte hartzen du ere.

## Binakako finalak

Urtea	Txapeldunak	Txapeldun ordea	Tantoak	Pilotalekua
1980-81	García Ariño IV.a - Maiz II.a	<b>Bergara II.a</b> - Martinikorena	22-13	Anoeta
1984-85	<b>Bergara II.a</b> - Martinikorena	Oreja III.a - Galarza III.a	22-18	Anoeta
1985-86	<b>Bergara II.a</b> - Martinikorena	Alustiza - Tolosa	22-15	Anoeta
1989-90	Retegui II.a - Errandonea	<b>Bergara II.a</b> - Etxenagusia*	22-3	Anoeta
1991-92	<b>Bergara II.a</b> - Arretxe	Unanue- Zezeaga	22-18	Ogeta

\* Maiz II.ak gripea zuenez Etxenagusiak ordezkatu zuen.

**Elkarrizketa DV (2006ko azaroa):**

[http://www.diariovasco.com/prensa/20061117/deportes/planteo-fichar-pelotaris-otra\\_20061117.html](http://www.diariovasco.com/prensa/20061117/deportes/planteo-fichar-pelotaris-otra_20061117.html)